

IÑAKI BAKEDANO -New Yorken bizi den hernaniarra

"New York-en atzerritarra izatea da bertakoa izateko modua; han denok gara atzerritarrak eta bertakoak"

■ Iñaki diseinatzaile grafikoa da orain baina bide luzea egin du horretara iristeko, ingelesik jakin gabe ausartu baitzen New York-era joaten ■ "Hogeita bost urterekin edozertarako adorea daukazu"; lana, familia eta lagunak hemen utzita alde egin zuen Iñakik.

IÑAKI Bakedanok duela hamabi urte inguru maletak egin eta New York-era alde egin zuen, geroztik han bizi da emaztearekin; hala ere, sarri-sarri etortzen da Hernanira lagunak eta familia bisitatzera, eta hemen New York-en baino hobeto egiten omen dakigun horretara: parrandara alegia.

■ Hernani bezalako herri txiki batetik New York-era iritsita zein da lehen inpresioa?

Ni beti gehien harritzen nauena jendea bera da; jende hain ezberdina, moda falta, estandarizaziorik eza... hemen orain estandarizazioa oso indartsua da baina han ez; hainbeste talde etniko, hainbeste kultura ezberdin, hainbeste moda daude denak batera; azkenean modarik ez dago.

Miseria ere oso handia da. Homeless-ak adibidez (etxerik ez duten pertsonak), zenbatu, ezin dira zenbatu, baina 100.000tik gora direla diote. Aldi berean, dagoen aberastasuna ere izugarria da. Kontrasteak oso handiak dira. Diruaz esan dudana bera esan daiteke kulturarekin ere; ignorantzia handiena eta kultura maila oso jasoak, biak batera aurki daitezke han.

■ Zein zailtasun izan zenuen aurrera egiteko; lana topatzeko... ez zenuen nostalgiarik sentitzen, etxerako gogorik?

Beno lehenengo ingelesa ikasi behar izan nuen eta gero lehenengo lanak topatzen hasi nintzen; lan bajuenak egiten hasten zara. Nire lehenengo lana mezulari gisa egin nuen; bizikletan ibiltzen nintzen New York guztian zehar. Esperien-



Iñaki Bakedano Tilosetan, New Yorketik oporretan etorruta.

tzia polita izan zen; hiri osoa ikasi nuen: kaleak, zenbakiak...

Hasieran ez nekien zenbat denbora pasatzera joan nintzen, probatzera joan nintzen. Lehen bi urteak onenak dira, gauzek ez baitute hainbeste garrantzi; irabazia gastatzen duzu, parrandak goizeko ez dakit ze ordura arte, bizimodu ero samarra daramazu. Gero hasten dira buruhaustak.

■ Kultura oso ezberdina da hangoa eta hemengoa? Zaila izan zen egokitzea?

Egia esan hango kultura eta

"Amerikarra zara?"
galdetzen dutenean,
segituan erantzuten
dut, "No, excuse me,
ni New York-ekoa
naiz"

hemengoa oso berdina da. Kultura mendebaldarra da.

"Hernanin ikusten nuen jendea hemen jaio, hemen bizi eta bertan hiltzen zela zen. Hau asko maite dut, beti itzultzen naiz, baina nire bizitzarekin zerbait ezberdina egin nahi nuen; hori baino zerbait gehiago"

Hemengo balore berdina dituzte: dirua egin, lasai bizi, oporretara joan urtean behin...

Hala ere ez dira New York eta Estatu Batuak nahastu behar, oso ezberdinak dira. Politikoki, pentsatzeko moduagatik... deanean da ezberdina New York. New York askoz europarragoa da, Europako hirien oso antzekoa da: Londres, Paris... New York beti hiri demokrata izan da eta amerikarrek hori gorroto dute, Boston gorroto duten eran. New York-etik hogeita hamar kilometrora nabaritzen da ezberdintasuna, baita itxuran ere; kristonak dira, lodiak, oso lodiak, oso orterak, oso badakizu... amerikarrak.

■ Zer ematen die/dizue New York-ek artistei, denek han bukatzeko? Zu ere artista izatera iritsi zara.

Bai, hiria ona da horretarako. Ni diseinatzaile grafikoa naiz, baina esaten den bezala harri bati ostikoa eman eta hamar artista ateratzen dira hemen; New York artisten hiria da. Jendea bera da hiriak aportatzen duena. Nirekin topatzen denak adibidez, Euskal Herriari buruzko informazio asko jasoko du, eta hori herrialde ezberdinetako jende pila batekin gertatzen da; poliki-poliki mundu osoko informazio asko biltzen zoaz, eta idazleak adibidez, horretara dedikatzen dira, obserbaziora; eta New York detailaz beteta dago.

■ New York-ek oraindik irailaren 11-ko bi hutsune horiek dakarzkigu burura. Nola bizi zenuten oinezkoek gertaera hura? Beldurrik sentitu zenuten?

Oso gogorra izan zen. Nik oso maila pertsonalean bizi izan nuen, azken batean nire kontra-ko atentatu bat ere bazen. Orain

hemen horretaz jabetzen hasi dira Madrileko atentatuaren ostean; tren horretan edozein joan zitekeen, Anoetako partidu batean bonba bat jarriko balute bezala da. Beste baloraziotan sartu gabe, zein da gaiztoa, nork egin du gaizki lehenengo... beste modu batean sentitzen duzu.

Egunean bertan inpresioa oso handia izan zen, balkoitik ikusi nuen dorreak nola erortzen ziren; o my god! Jendea nola aterako zuten pentsatzen ari ginen, ez erori egingo zirenik.

Beldurrik ez nuen sentitu. New York-eko jendeak badakigu non bizi garen. Badakigu norbaitek atentzioa deitzeko zerbait egin nahi badu, non egingo duen, ez du Hernanin egingo, New York-en egingo du; politikagatik, erotuta dagoelako... berdin dio zergatik, baina New York-en egingo du. Kontziente gara horretaz. New York-eko jendea ez da hartaz ia gogoratzen, hiria lehenengo bera da.

■ Zein izan da New York-ek eman dizun ikasgai nagusia?

New York-en jaso dudana ikasgai garrantzitsua nire txikitatunarena da. Hernanira etorri eta handi uste asko topatzen duzu, bere buruari garrantzi asko ematen dion jendea. Agian jarrera hori herri txikitetan ohikoa izan daiteke, hemen sortzen diren inbidiak, lehiak oso zentzugabeak bihurtzen dira behin hara joan eta gero. New York-en ez zara ezer; inurri bat gehiago zara han dauden inurri guztien artean. Ez naiz inor baino gehiago, noski, ezta gutxiago ere. Umila izaten irakatsi dit New York-ek. □

(*elkarrizketa osoa www.kronika.net-en)



- Eguneko menua
- Garagardotegiko menua
- Garagardo aukera zabala
- Pierrade, Fondue, Kodilloa, Saltxitxak...



Uztailak 10, larunbata, GUNEA Zerbezerian
CHIMAY Zerbeza Belgikarraren festa - TRAPENSE CHIMAY afaria

Jateko

1. Endibiak urdaizpikoarekin
2. Haragi errea Flamenkar eta Chimay gorri erara
3. Postrea: Sabayon -Natilak Chimay urdin erara-

Edateko

- (Chimay txuria)
- (Chimay gorria)
- (Chimay Urdina)

Prezioa: 18 euro

Ordua: 21:00etan

Afaritan Chimay zerbeza gamaren aurkezpena eta degustazioa egingo da. Bitartean Chimay zerbeza nola egiten den azaltzen den pelikula bat ikusi ahal izango da.

“Nortasunaren aukera, imaginario kolektiboaren arabera egiten da eta Nabarralderen asmoa da aukera horretan eragitea”

■ Gaizka Aranguren esatari nafarrak, Nabarralderen ekimena azaldu zuen Biterin, eta Nafarroa euskal estatua izan zela azpimarratu zuen ■ Jende asko bildu zen hitzaldira.

SAN Joan bezperatan Nabarralde ekimenak antolatuta hitzaldia izan zen: *Euskal Herria, kontzeptu kulturala; Nafarroa-Nabarra, euskal Estatua* gaia hartuta. Hizlari lanetan Gaizka Aranguren aritu zen eta hitzaldiaren aurkezpen bezala zera esan zuen: “nortasun hautua dugun imaginario kolektiboaren arabera egiten dugu eta Nabarralderen asmoa da nortasun hautu eta hautu politiko horretan eragitea”.

Gaizka Aranguren azaldu zuen Euskal Herria kontzeptua duela 15 bat urtera arte euskararen herria definitzeko erabiltzen zela eta egun esanahi politikoa erantsi zaiola. Nafarroa kontzeptua ordea, mendeetan zehar, euskeraren adierazpide historiko, juridiko eta politikoa izan dela azaldu zuen.

Nafarroako Estatua

Texaseko datu base batean ageri diren hainbat mapa erabili zituen segidan Gaizka Aranguren, Nafarroaren bilakera azaltzeko. Adierazi zuenez, 500garren urtetik jadanik, germaniarrek Europa kontrolatzen zutenean, Vasconia izeneko lurraldea bere kasa antolatzen hasia zen. Vasconia izeneko lurralde hori ere, mendez mendez ageri da. 778garren urteko Orreagako gudua ere aipatu zuen eta ordu ezker lehene aldiz garbi agertzen dela euskaldunen egitura politikoa. Aranguren adierazi zuen 824garren urtean, *Eneko Arista-Aresta edo Aritza* izeneko erregea izan zutela euskaldunek, eta Iruñeko Erresuma izena zuela garai hartan.

1095garren urteko Clermonteko kontzilioan, Aita Sainduaren inguruan, garai hartako mundu ezaguneko erresuma kristauak bildu



Gaizka Aranguren Biteriko hitzaldian.

ziren, eta Gaizka Aranguren azaldu zuen bertan izan zirela Iruñeko Erresumako ordezkariak. Eta honek adierazten du bere hitzetan, “euskaldunak Nazioarteko Zuzenbide subjektu den egitura juridiko-

politikoaren jabe zirela”.

Gaztelak lurraldeak konkistatu

Gaizka Aranguren azaldu zuen 1200garren urtean Gasteizko 9 hilabeteko setioaren ondoren Antso VIIak baimena eman ziela gasteiztarrei Gaztelaren aurrean etsitzeko. Ondorioz, Erresumak Gaztelaren eskutan geratu ziren: Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa. 1512garren urtean, Gaztelak gaur egun Nafarroako Foru Komunitatea deitzen zaiona ere konkistatu zuen. Pirineoz bestalde, Baxe Nafarroa eta Biarnok independentziari eutsi ziotela esan zuen Gaizka Aranguren.

Nafarroako Erresuma XVIIgarren mendera arte

Nafarroako Erresumako zati hau 1.600garren urtera arte errealitatea izan zela adierazi zuen Gaizka Aranguren. Orduan Erresumako Erregea zen Enrike IIIa Frantziako Henry IVa bihurtzen baita, eta ondorioz lurralde hauek Frantziaren barruan geratuko dira. □

“Nafarroa, mendeetan zehar euskararen adierazpide historiko, juridiko eta politikoa izan da”

“824garren urtean, Eneko Arista-Aresta edo Aritza izeneko erregea izan zuten euskaldunek, eta Iruñeko Erresuma izena zuela garai hartan”

“1200 urtean Antso VIIak baimena eman zien gasteiztarrei Gaztelaren aurrean etsitzeko, 9 hilabeteko setioaren ondoren. Ondorioz Gaztelaren eskutan gelditu ziren Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa”

Piraguismo ikastaroak Hernanin, uztaila eta abuztuan

■ 10 orduko ikastaroak dira ■ Izen ematea uztailaren 15a aurretik (652 75 23 35).

PIRAGUISMO ikastaroak emango dituzte uztailaren 19tik 24ra eta abuztuan 19tik 24ra Hernanin. Ordu eta erdiko saioak izango dira, goiz eta arratsalde. Hasiera Urumea erriean egingo dute eta pixka bat ikastea Donostia edo Hondarribiara joatea da asmoa. Izen ematea uztailaren 15a aurretik egin behar da, 652 75 23 35 telefonora deituta. Ikastaroaren prezioa 36 euro.

Ikastaroa Kaxkardi elkarteak antolatzen du eta bertako kideen hitzetan dagoneko badaramazkite 20 urte. Dina Bilbao zena, Idoia Elozegi eta Arantxa Orbegozok sortu zuten elkarte eta helburua da kirola lantzea natura gozatuaz. □



Piraguismoa ikasi nahi duenak Hernanin badu aukera.



Lehenengo urteko herri afaria, Martindegin.

Umeentzako jolasak eta herri afaria gaur Martindegin

■ Goizeko 10:00etan hasiko dira festak eta gaurko eguna Etxabe anaien dantzaldiarekin bukatuko da.

GAUR hasiko dira San Ferminak Martindegin eta goizetik iluntzera umeentzako ekintza eta jolasak izango dira. Hala ere, goizeko 10:30-etan auzoko hildakoen ome-nezko meza izango da.

Gazteen bazkaria eta Afari herrikoia ere gaur izango dituzte. Herri afarian jende asko biltzen da normalean eta aurten ere hala izango da seguruenara. Bihar ez da festarik izango Martindegin eta ostiral arratsaldean ekingo diote berriz ere San Ferminei. □

GAURKO EGITARAU

- 10:00, Diana.
- 10:30, Hildakoen aldeko meza.
- 11:30, Haur jolasak.
- 14:00, Gazte bazkaria.
- 16:30, Marrazki Lehiaketa.
- 17:00, Altxorren bila.
- 18:00, Tiro karabina txapelketa.
- 20:30, Afari herrikoia.
- 22:30, Dantzaldia Etxabe anaiekin.

Plater tiro txapelketa Leniz-en, Hernaniko Txirtea elkarteak antolatuta

■ Datorren larunbatean da, goiz eta arratsalde.

HERNANIKO Txirtea elkarteak antolatuta plater tiro txapelketa dago Lenitz Gatzagan, datorren larunbatean. Mini-foso modalitateko 15 plateretara jokatu da txapelketa. Hasiera goizeko

11:00etan izango da eta bukaera arratsaldeko 18:00-etan.

Lehenengo 14 sailkatuentzat daude sariak: urdaiatzeko eta Armusa etxeko kartutxoak. □

San Ferminak ospatuko dituzte gaur Udalekuetan

■ Txupinazoa eguerdiko 12:00etan izango da.

UDALEKUAK aurrera diotaz Hernanin eta neska mutilek San Fermin festak ospatzeko aukera izango dute gaur Her-

naniko kaleetan barrena. Txupinazoa gaur bertan botako dute, eguerdiko 12:00etan, Udaletxeko balkoitik. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103
- ▶ Alkoholiko anonimo: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Eguez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738
- ▶ Guez: Diaz Andoain. Nagusia 19 ☎ 943 592057

IRAGARKI MERKEAK

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia, ...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

OPEL Vectra GTDI salgai. 98ko abendukoa, oso egoera onean. Garajeen egoten da. Interesatuak deitu: 619 46 00 45